


bidegileak



Lino Akesolo (1911-1991)

Egileak:

**JULEN URKIZA**

**LUIS BARAIAZARRA**




rain dela 20 urte, 1991eko irailaren 17an, Bilbon Lino Akesolo hil zenean, Euskal Herriko komunikabideek, egunkari, irrati, aldizkari, ETB, eta abarrek Lino Akesolo jakintsuaren galera azpimarratu zuten.

Benetan jakintsua zen, izan ere. Liburu artean sartua, jakin-min bizi az egagutu dugu beti A. Lino, egiazale, eta sakontasunaren bila. Ikertzaile eta idazle trebe genuen, eta batez ere euskal literaturan eta euskal hiztegi gintzan jakinduria apartaren jabe.

A. Lino Akesolok erabilitako gaiak era askotakoak dira: a) euskara, euskal literatura eta kritika; b) euskal testuen eta euskal idazleen ikerketak; c) hizte-

gigintza; d) historia; e) teologia eta liturgia; f) beste hizkuntzetako liburu literario, historiko, teologikoak, etab. gaztelaniara itzultze lana...

Gaztetarik euskal idazle, baina azken urteetan, azken 20 urteetan idatzi zuen gehien. Ez zen, berez, lanak argitaratzeari emana; euskal literatura eta historia arloan egiaren eta zuzentasunaren alde irten beharrak eta adiskide batzuek hartara eraginda irten ohi zen



Lino Akesolo (1911-1991)



Diman omenaldia egin zioten egunean

gehienetan euskal letren plazara; horrela lan-sail ugari samarra eta askotarikoa biltzea lortu zuen. Haren lan nagusia, artikuluen bilduma, hiru liburukitan agertu zen 1989-1992 bitartean, 2.052 orrialdetan (Karmel Sorta I\*, I\*\*, I\*\*\*; hirugarren liburuki honetan aurki dezake irakurleak L. Akesoloren lanen bibliografia osoa, 18-45. or.).

Bere bizitzako azken urteetan hainbat aitormen jaso zituen: 1984an Bizkaiko Elizbarrutiko elizgizonek egina; 1987an Labayru Ikastegiaren omenaldia jaso zuen Derioko Udako Ikastaroaren barruan; 1989an Bizkaiko Foru Aldundiak omendu zuen handiki-

ro; Eusko Jaurlaritzak 1989ko Euskal Letretako Merezimenduzko Saria eman zion; eta azkenez 1989ean Dimako herriak, *Euskera-zaintza* eta *Euskera-zaleak* partaide zirela, omendu zuen herriko semea.


Euskal literatura eta hizkuntzaren arloan esanguratsuak ziren pertsona gehienekin izan zituen harremanak; hil zenean, bere gelan gordetzen zituen haietariko askorengandik jasotako gutunak, esaterako, Antonio Maria Labayen, Antonio Zabala, A. Hipolito Larrakoetxea, Julen de Yurre, Iokin Zaitegi, Karmelo Etxenagusia, Anai Berriotxoa, Norbert Tauer, Justo Mokoroa, Orixe, eta beste batzuenak.

Aldaketa eta gorabehera biziak izan zituen egoera sozial eta kulturean kokatu behar dugu Aita Lino, batez ere euskarari eta euskal letrei dagokienez: gerra aurretik, 20 eta 30. hamarkadetan, euskarak gorantz egin zuen, bai hezkuntzan eta baita oro har literatura-jardueran ere. Baina etorri zen gerra eta harekin batera hondamendia, gizarte-bizitzari eta euskal kulturari dago kienez. Gerora, pixkanaka-pixkanaka eta eragozpen ugariaren artean, susperralditxoa izango da eta azkenik 70 eta 80ko hamarkada inguruko bultzada indartsua. Euskarak eta euskal literaturak izan dituen gorabehera hauek barne-barnetik bizi izan zituen A. Linok, protagonista eta lekuko gorenetakoa izanez.



Diman bere omenaldi egunean

## **Hasierako pausoak Diman eta Karmengo Ordenan**

ino Dimako Oba auzoan jaio zen 1911ko apirilaren 7an; haren gurasoak Antonio Akesolo, dimostarra, eta Praxedes Olibares, Zeanurikoa.

Bere Obako auzoan ikasi zuen 10 urte arte; maisua euskalduna zuen, eta euskara zen eskolako hizkuntza. 1921eko azaroaren 23an Larreako Karmeldarren ikastetxean sartu zen giza ikasketak egitera. Sei urte hauetan (1921-1926), ikasketak burutzen ari zela, euskaltzaletasunak ukitu zion barrua, euskara ere irakasten baitzen. A. Angelo Jauregi izan zuen irakasle,

Gabirel Jauregi *Pisia* eta *Kimia* liburuen egilearen anaia. Eta A. Angelok gogoan berotzen zien ikasleei *Euskal Esnaleak* antolatzen zituen lehiaketa literarioetan esku hartzeko. Linok, 14 zituela, *Euskeraren edertasunak* izenburuaz idatzi zuen lan bat, 1927an *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratu zena. Nola euskaltzaletu zen Linok berak diosku: «Zaletasun ori Larreako ikastetxean sartu jatan, beste batzuei lez. Zek eraginda? Gauza askok: Bertako irakasleak, Gernikan Eusko-ikaskuntzak izan eban Batzar anditik Larreara etozan otsak. Gerotxoago Norbert Tauer Madrillen zala, gure ikastetxearen barri izanda, txekoeslobiar orrek egin euskun kartak Eusko-ikaskuntzak bialduta, Jose Migel Barandiaran jaunak egin euskun ikustaldia eta azterketak»... (*Karmel* 1987-3, 76).

Larreako ikastetxean Lino Akesolo R.M. Azkueren jakinduriaz txunditurik zegoen, eta orduantxe jo zuten hark eta haren lagunek euskararen iturri garbietara: Txomin Agirre, Azkue, Mañariko Bustintza, Zamarripa eta abarren liburuetara. Geroago begiko-begiko egingo zitzaizkien Lauaxeta, Lizardi, Arrese biak eta abar; baina lehenengo euskal literatura idatzia aipaturiko idazleen liburuetatik edan eta ahogozatu zuten.

1926ko abuztuaren 10ean karmeldar jantzia hartu zuen, eta hurrengo urtean, abuztuaren 14an Lino Familia Santuarena izenaz profesia egin. Ondorengo ikasturtea, 1927-1928, giza ikasketetako azkena, Markinan egin zuen. Eta Markinako Karmeldarretan hasi zen euskaraz lantzen eta euskaraz idazten. Karmeldar gazteak euskaltzaletasunez pizteko toki gertatu zen Markina... Han zen Urbano Manizidor historia euskaraz azaltzen, A. Lontzi (Ormaetxea), Txomin Agirrereren *Garoa* goratzen, eta ikasleengan harridura sor-



Lino Akesoloren baserria



Larreako komentua gaur egun ikusten den bezala



Lino bere gurasoekin



Markinako karmeldarren komentua, hemen nagusi izan baitzen A. Lino (1922-1975)

tzen... *Zeruko Argia* eta *Jaungoiko-Zale* aldizkariak hartzen zituzten beste batzuen artean... Ondorengo hiru urteak Gasteizen egin zituen filosofia ikasten (1928-1931) eta lau Begoñako Karmelon teologiako ikasketak egiten (1931-1935). Hemen hasiko da idazten eta 1931n sortutako *Karmengo Argian* argitaratzen, baita S. Teresaren «Camino de Perfección» liburuaren itzulpena, *Onbidea*, prestatzen ere. Begoñako Karmelon apaiz egin zen 1934ko uztailaren 8an. Eta hurrengo urtean Zornotzako ikastetxeko irakasle izendatu zuten; eta 1936an *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari; lau mila harpidedun zituen garai hartan aldizkariak.



A. Linok zuzendutako *Karmengo Argiaren* azkenengo alearen lehen orrialdea (1936)

## Gerra zibila eta espetxea

Baina 1936an gerra zibilak moztu zituen Aita Linoren lan literarioak, beste askorenak eta batez ere haren lagun A. Santirenak bezala; euskal aldizkari guztien bizitza ere gerra anker hark hautsi zuen. Basurtoko kuarteletik Soldadutzara deitua izan zen, eta gudarien ondora joan zen haien kaperau, Itsasalde batailoian, Matxin taldean, Otxandio, Urduña, Lekeitio Zornotza, Matxitxako, Lezama eta abarretan zehar ibili zen. A. Linok kaperauek zuten eginkizunen agiria ere hil arte gorde zuen; paper zaharkitu eta pixka bat puskatua da. Nahiko interesgarria da xehetasun hau: gerratean eguneko hamar pezetako ordaina hartzen zuen eta liburutarako izan ohi zen. Horrela erosi zuen, esaterako, Manterolaren *Cancionero Vasco*.

Atxiloturik, kartzelan sartu eta 1937ko uztailaren 30eko gerra-azuzitegian, fiskalak 12 urte-



Gerrateko bi dokumentu: A. Lino Akesolo «Itxasalde» batailoiko kapilau izendatua izan zenekoa, teniente graduaz (1937-I-22). «Gudarien kapilauentzako oharrak» dituen folioa




ko kartzela eskatu arren, 16 urtekoa eman zioten. *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari izatea egozten zioten beste gauza batzuen artean: «Ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmengo Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera: “Ya ven, –esaten eban gogor salatzailleak– *Karmengo Arjia* (olan esaten eban fiskalak), hasta el título es separatista”. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai izan nebanean, maipurukoak: “Calle y siéntese”. Eta honela jarraitzen du A. Linok: “Gorrotagarria zan *Karmengo Ama*, gorrotogarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotogariak gure Indiako eta Ameriketako mixiolariak eta

euren lanak, gorrotogarria euskeraz egiten zan edozein lan”».

Auzitegian emandako epaia leku ezberdinetan bete zuten: kartzela bihurturik zen Begoñako Karmelon, Langraitzen, Venta de Baños-en eta Carmonan. Lino eta haren lagunak batasunean bizi ziren, garrastasunik gabe, bai kartzelan zeuden garaian eta baita gero ere. Herriaren hondamena ikustea negargarria zen, baina ez zuten itxaropenik galdu. Espetxean ikasteari eman zion A. Linok, batez ere hizkuntzak ikasteari. Lehendik pixka bat ikasia zuten frantsesa hobeki ikasiz gainera, ingelesa, alemana eta italiara ikasteari eman zion gogotsu...

Toselli-ren Serenataren frantsesezko testuaren ordezkarako olerki bat asmatu zuten.



Santanderko apezpikuak Puente Viezogoko apaiz arduradun izendatzen du (1945-IX-24)



«Baldintzapeko askatasun-agiria» (Carmona-Sevilla, 1940-VII-29)

Espetxe gainetik hegan biraka ari ziren belatz txikiek sorrarazi zioten irudi eragilea. Herri-minez Euskal Herriara hegan egin nahi luke:

Ortzean zear zabiltzen usoak,  
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari  
erbestetuaren maitasun agurraren geznari!

Etsaiak erasota  
ara non dan lur jota,  
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,  
gaur ene gogoa,  
espexeko ordu beltzetan,  
maitezko egoetan  
zuganaño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,  
neu ere zorigaitzaren azkarri:  
zeu, aberri!

Kartzelako 16 urteak seira jaitsi zizkioten. Hiru beteak zituela irten zen 1940ko uztailaren 29an, baina baldintzapeko askatasunez. Horregatik, beste hiru urtez debekatua zuen euskal komentuetara etortzea. Baldintzapeko askatasuna ematen zioten agirian, A. Linoren delitua zein zen ere badator: «Excitación a la Rebelión». Hilabete gurasoekin jaiotetxean egin ondoren, Hoz de Anero-ra, Kantabriako karmeldarren basamortura, bidali zuen Probintzialak (1940-1941). Handik Iruñera joan zen (1941-1943), Nafarroa ez baitzen debekaturiko herrialdeen artean sartzen. Bi hilabete Zornotzan izan zen, eta beste bi eta erdi Corellan; gero Kantabriako El Soto-ra bidali zuten (1944-1948), eta Ponte Viesgo-ko parrokiako arduradun izan zen.



INTERNOS EN DUEÑAS CONDUCIDOS A CARMONA			
1. D. ONDINO NORTIAS	4	14. E. RAMON OSTOLAR	4
2. FERNANDO MALLOERRA	20	15. E. JUAN MARTIN ACHUR	4
3. FR. LINO ACEVEDO	16	16. E. JUAN TORRENTINO	12
4. D. ORENDINO FERNANDEZ	20	17. FR. RAFAEL IZQUIERDO	20
5. MONTEO UGOYTA	4	18. F. JATUBENGO VANDERHO	20
6. FR. ANGEL ITURBE	16	19. JUAN ZABARTEA	4
7. D. FEDRICO DEBBA	4	20. IGNACIO ARCHABATEA	4
8. JOSE MARIA DABOYITA	12	21. EUGENIO LANZAROLA	20
9. FLORENTINO JABARRASA	4	22. FR. ESTEBAN ANSOA	4
10. JOSE ANTON LOPEZ	12	23. D. VICTORIANO LARRAZAN	12
11. FR. JAYRADO OROZUELA	20	24. ANTONIO TAMAYO	20
12. J. JAMAIN ELIZAB	20	25. ELEGORRE GORRIBEA	4
13. FR. JOSE P. LLANTOYEA	8	26. NARCISO JARRAZOLA	12
14. D. FERMIN URTI	20	27. JUAN MENDIVIEGO	20
15. D. ROMAN JAUREGUI	20	28. JOSE JABARTEA	4
16. ENRIQUE ANJAGA	16	29. FEDRICO ZABARTEA	12
17. JOSE JAVIERA	4	30. JAYRADO YARRAZOLA	4
18. JULIO UGARTE	12	31. BERNABE ACHA	4
19. D. MARINO ERAGO	4	32. JULIAN BUSTIÑO	20
20. ANTON ALBAÑA	4	33. FLORENTINO BARRERICH	20
21. MENDEL LLANOS	20	34. CASTOR MARAZON	4
22. MANUEL DE OSTOLAR	8	35. JAYRADO ARANA	20
23. JOSE JAUREGUI	20	36. JOSE JAUREGUI	20
24. JOSE JOSE AGUIRRE	12	37. JOSE DE AGUIRRE	20
25. FR. NICOLAS PATEL	16	38. FLORENTINO LUGARDA	20
26. FLORENTINO AYERDI	12	39. JUAN ALDECOA	20
27. MANUEL ARANA	20	40. VICENTE JAINZ	20
28. GERMAN DE MORTIENA	12		

Carmona-ko kartzelan gerra ondoren

## **Begoñako Karmelon irakasle eta liburuzain (1948-1991)**

1948ko apirilean teologoaren irakasle izendatu zuten, baina ikasturtearen amaiera arte Gasteizen izango zen eta ikasturte berrirako Begoñako Karmelora joango zen. Hemen biziko da hil arte irakasle eta liburuzain izanik; alabaina ez urte guztiak jarraian; tartean hiruna urte emango ditu Donostian (1969-1972) eta Markinan (1972-1975) priore karguan.

1969 arte, hemeretzi urtean Elizaren eta Karmengo Ordenaren historia, patrologia eta misiologia irakasten ditu. Batez ere 1954tik aurrera euskal liburu zahar eta berri asko erosten zituen Karmeloko liburutegiraiko. Bilboko liburu-denda batzuetan oso eza-guna zen eta baita Donostiako «Manterola» liburu-dendan ere. Euskal liburuekiko zaletasun horretan, besteak beste, Lazkao eta Bellokeko Beditarrak ere lagun zituen, harreman apartak baitzituen haiekin.

1975eko apirilean, Markinako priore-kargua amaitu ondoren, Retana jaunaren eskabidea tartean zela, Begoñara doa. *Diccionario de Autoridades del Euskera* obra amaitzea izango du bere egitekorik behinena euskal arloan

garai horretan. Bestalde, Karmeloko euskal liburutegiaren arduradun izango da...

Aurrerantzean hil arte Bilbon jarraituko du. Hauxe izango da, ezbairik gabe, euskal lanei dagokionez, haren bizitzako etaparik oparoenena.



Begoñako Karmeloko eliza eta komentua berria



Begoñako Karmeloko lehengo komentua

## Izaera

Egia esan, ezin dugu zertzelada batzuk baizik eman, gainbegirada arinez, anaiarteko bizitzan, lan ezberdinetan adiskide eta lankide gisa agerzen zuen izaera taxutuz...

Gizon eta laguntzaile aparta zela esan dezakegu batez ere; anaiarteko bizitzan inori kalterik egin ezinekoa, beti laguntzeko prest zegoena eta bere egitekoak zintzo betetzen zituena. Bai Karmeloko fraideek, bai ikasle nahiz ira-



Begoñako Komunitatean Probintziala, A.Hipolito, tartean dela



Begoñako Karmeloko elizkizun batean

kasleek harengana jotzen zuten jakintza gaietan eta bereziki euskal gaietan, harengandik nahi zutena lortuko zuten uste osoz...

Bakezko gizona zen eta isila. Ez zituen borroka eta zalapartak gogoko; esaterako, euskara eta Euskaltzaindiaren inguruan sortu ziren eztabaida haietatik albora gelditu nahi zukeen. Lana, ikerketa, gehiago eta gehiago jakin nahia... horiek ziren haren izaeraren ezaugarri nabariak... hala ere lagun artean eta etxean interesgarri eta kritikoa zen, haserretzen zenean barre eragiten zuena... Norbait argibide bila joaten zitzaionean, ez zen harrizkoa purrustadaka bezala hastea; baina hori lehen erreakzioa baizik ez zen, haren berezko izaera; gero beti lagunduko zion gogorik onenaz harengana jotzen zuenari. Ez zen batere handigurakoa eta zaratatsua. Jende aurrean omenaldiak esker onez hartu bazituen ere, ez zien horrelako gauzei garrantzirik ematen.

Beragan zintzotasuna eta leialtasuna ditu ageri; gogoko du karmeldar bizitza, eta bizi-modu horretan aurkitutako bake eta lanerako aukera ona, batez ere jakintza lanerako.

Haren izaeraren ezaugarrietariko batzuk, apaltasuna eta egijaletasuna ziren. Horretan Avilako Teresaren esaera hura egia bilakatuko da haren izaeran: apaltasuna egiaz aritzea da. L. Arostegik *Idazlan guztiak* obraren sarrera dioenari jarraituz, honela zehaztuko genuke:

Egiazale eta langile izatea haren ikerlanetan egiaztatzen da. Honetarako, gainera, oroimen argi tinkoaren jabe dugu. Lanik asko aparteko lagungarririk gabe, liburutegiari, bere oharrei eta oroimenari esker burutu ahal izan ditu. Irizpide zorrotzekoa dugu, funsgabeko baieztapenik ez egin ez onartzeko. Oso saiatua eta iraunkorra lanean. Bere ikerlanean zeharo bildu eta gainerakoaz ahanzteko gaitasun bereziaz. Baina dohain hauek guztiak ere ez dira nahiko haren lana argitzeko. Bada hor beste zer bat, esandako guztien bizi-endar eta eragile dena: «Beti izan naz ni jakin-gurekoa». Berezko jakin-mina. Ikusi eta ikasi, jakitearren; jakitearen atseginagatik. Edozein komentu edo lekutara doala ere, berehala ekingo zion hango liburuak eta paperak aztertzeari. Haren joan-etorriak bide batez liburutegiren baten sartu-irtena egiteko izan ohi ziren askotan. Akesolo, beste eginkizunik izan ezik, liburu artean aurkituko zenuen. Bere begiak edo irakurgaien baten josita, edo (autuan edo isilik zerbaiten zain) apur bat gorantz eta urrutirantz zuzendurik izateko joera zuen.

Beste ezaugarrietariko batzuk askatasuna eta ausardia dira... Bere iritzia eman eta egia-aren alde egiteko askatasuna, pertsona, idazle eta etor daitezkeen nahigabeak kontuan izan gabe. Hau kritikazko idazlan ugaritan nabari da. Hark egia eta zuzentasuna ditu beti kontuan. Askatasun eta ausardia hau militarren aurrean ere agertuko du. Esaterako, 1973ko abuz-

tuan Markinan gertatutakoan: A. Lino Markinako nagusi zen, guardia zibilek komentua miatu eta liburu, paper, multikopiagailu eta abar eraman zituztenean. A. Linok protesta bizia egin zuen miaketagatik, egiteko eragatik eta eraman zituzten aldizkari eta liburuengatik, hauek edozein liburu-dendatan salgai zeudela adieraziz eta liburu subertsiboak ziren ala ez erabakitzea epaileari zegokiola esanez. Orduan goardia zibilak barre egin zuen destainaz, esanez: «Eso no lo dice ni un niño de seis años»; eta A. Linok ihardetsi: «No lo dice un niño de seis años, pero un hombre de 60 sí».



Lino Akesolo bere ilobaren ezkontzan

## Gogo bizia: jakin-mina eta egia

Lino Akesolo Euskal Herriko liburu-denda eta liburutegi askotan oso ezaguna zen. Erosten zituen liburuak nahiz dohainik ematen zizkietenak, milaka izanik ere, guztiak osorik nahiz zatika irakurtzen zituela ziurta genezake. Horren lekukotasuna Karmeloko liburutegiko hainbeste liburutan gelditu da, irakurri ahala egindako ohar eta markatxoak agertzen baitira haietan... Eta hau, ez euskal liburuetan soilik, baita bestelakoetan eta edozein gai darabilenetan ere. Irakurri eta irakurri egiten zuen jakin-minez.

Azpimarratzekoa da egiaren alde eta arinketaz emandako iritzi kaltegarrien aurka egiteko zuen joera. R. M. Azkueren ohorea edo izen ona babestu nahirik, hainbat idazlan egin zituen; behin baino sarriago idatzi zuen M. Lekuonaren alde ere (ik. *Idazlan guztiak*, 684-707 or.); hari berekoak dira berriki egindako batzuk, adibidez, *lñazio deuna eta euskal kultura* (ik. *Idazlan guztiak*, III, 275-290), *Diasporako euskal idazleak* (ik. *Idazlan guztiak*, 721-725), etab.

Eztabaida eta auzi-mauzietan sartzen denean, ustez behintzat, egiaren alde egitearren sartzen da; esaterako, Euskaltzaindiaren biltzar batzuk zirela eta dardar eragiteko idazkiak argitaratu zituen, baina beti egia aurkitu nahirik (ik. *Euskera batuaren billa*, in: *Idazlan guztiak*, 145-165. or.; *Zuk zer dezu*,



Bizkaiko Aldundiak aginduta,  
Victor Sarrigartek 1989an egindako koadroa

*Arantzazu?*, 172-173. or.; *Luis Mitxelana jaunari Errenderiara*, 188-191. or.; *Euskaltzaleen batzar gogoangarria*, 10-16. or.; *osotu bageak*, 168-171. or., etab.). Beste batzuetan idazlan laburretan egingo du egiaren alde eta arinketaz idatzitako idazlanen aurka, umore-tanto batzuk ere isuriz (ik. *Norentzat da arrikada ori?*, 850-851. or.; *Kontu adarjotzailleekin eta borbonkeriekin*, 179-181. or.; *Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin*, 182-184., etab.). Beste batzuetan euskal literaturako balioak aurkituz joango da, edota ahazturik nahiz bazterturik daudenak berraurkituz.



Urberuagako Bainuetxean 1966. urtean egin zen kapitulu probintzialean

Nori berea aitortu ohi zion; kritika literarioa nahiz historikoa egitean, balio eta alde onak ederki goraiatzeko zekien; berak idatzitakoa osatu eta zuzendu beharra ere aitortzen zuen geroago idatzitako idazlanetan (ik. *Bakoitzari, eta Iraizoz Aitari, berea, 900-901. or.*;

*Bakoitzari berea, 902-903. or.*; *Aclarando: la h aspirada en Oihenart, 62-65. or.*).

Eta hamaikatxo bider erabili zuen bere luma, zenduak edo hilak zirelako hitz egiteko gauza ez zirenen ordeez..., egiaren alde eta ezjakintasunagatik gutxietsiak zirenen izen ona gorde nahirik...

## **Euskarazko erakunde- etan partaide**

*E*usko Jaurlaritzak 1989ko Euskal Letretako Merezimenduzko saria eman zionean, kontuan izango zituen ez haren euskarazko lanak eta idaztean erakusten zuen maisutasuna soilik, baita taldeetan egindako lana ere.

Linok lan-talde eta elkarte askotan esku hartu zuen; guztiak ziren euskararekin zerikusia zutenak:

- R.M. Azkue bizi zela (1951 baino lehen) esku hartu zuen euskaltzainekin batzarretan. 1963an euskaltzain oso izendatua izan zen; poz-pozik hartu zuen izendapen hau; baina Euskaltzaindiaren barruan

nahaste eta giro txarra sumaturik, uko egin zion izendapen horri; dena dela, laguntzeko gertu izango zela agertu zuen. Eta baita ongi bete ere emandako hitza: hil arte Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kide izan zen.

- 1964an Bizkaiko Elizbarrutiko Liturgi Batzordeko izendatu zuten; itzulpenetan zamarik handiena bere gain harturik;



Euskal Liturgi batzarrekoak



1968an, Euskal Herriko Elizbarruti arteko Liturgi euskaratzaile Taldeko egin zuten eta Bizkaikoen buru: Meza-liburu handia, Irakurgaien liburuak, liturgiako eta sakramentuetako gainerako liburuak eta, kasu batzuetan, apezpikuen idazkiak itzultzea haien egitekoa zen...

- 1978an Euskerazaintza sortu zenean, A. Lino hautatuko dute buru.
- Beste erakunde batzuetan ere partaide izan zen: 1979an Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) kide oso izendatu zuen; Euskararen Aholku-Batzordekoa (1983); Kardaberaz-Bazkunako bazkide, Itzultzaileen ohorezko bazkide (1991), etab.

Baina Euskal Herriko aldizkarietan izan zuen esku-hartzea da batez ere azpimarratzekoa, era askotakoa eta oso aberatsa izan baitzen. Haren idazlanak 32 aldizkari ezberdinetan agertu ziren. Honela jar daitezke aldizkariak haren ekarpenen arabera, handienetik txikienera: *Karmel* (100 bat idazlan), *El Diario Vasco* (41), *Zeruko Argia* (23), *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (21), *Saski-Naski* (19), *Zer* (16), *Goiz-Argi* (15), *Jaunaren Deia* (9), etab.

Ez darabil idazkera berdina artikulua guztietan: egunkarietan labur idazten du, eta sarri-tan izenordez sinaturik. Aldizkarietan, berriz,

gehienetan luze samar idazten du eta artikulua serioagoak, azter-lan, kritikak, etab., ia beti bere izen-deituraz sinaturik. Euskarari dagokionez, gehienetan bizkaieraz idazten du, baina *Jaunaren Deia* eta halakoetan gipuzkera osotu antzekoan; beti lege zaharreko ortografiaz, hau da, «h»rik gabekoaz.

Haren bizitzako gorabehera batzuek esango digute zergatik idatzi zuen argitalpen batzuetan besteetan baino gehiago. Esaterako, 1969tik 1972ra Donostian bizi izanak argitzen digu zergatik idatzi zuen garai horretan beste inon baino gehiago *El Diario Vascon*, *Zeruko Argian*, *Eganen*... 1973tik 1976ra, Markinan bizi zela, *Goiz-Argin*... Eta bere azkenengo 14 urteetan, aldizkarien zuzendariek hala eskaturik, *Karmelen*, *Saski-Naskin*, *Zeren*, eta abarretan.



Zenbait diploma edo agiri: «1989ko Euskal Letretako Merezimenduzko saria». «Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak Lino ohorezko bazkide izendatu zuen 1991n. «Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País»ek bazkide oso izendatu zuen 1979an

## Ikertzaile - Aztertzaile

1948an Begoñako Karmeloko irakasle izendatu zutenean, Elizaren historia, Patrologia eta Liturgia irakatsi zituen; hala ere haren jakintza beste arlo askotaraino zabaltzen zen: Historia, munduko literatura, musika eta abar hartzeraino. Baina bere-bereak zituen arloak euskal kulturazkoak ziren, euskal historia, literatura, linguistika, dialektologia, etab. Beharbada, horregatik esango zuen Joan Mari Lekuonak «XX. mendeko gizonik handienetakoa izan da Aita Lino, jakinduria handikoa eta zehatza» (Egunkaria, 243. zenb., 23. or.).

Eta Egunkari eta orrialde berean Patxi Altunaren iritzia ere badator: «Denetik idazten zuen, denetik zekien. Mitxelena zenak esan ohi zuen ez zuela bizian ezagutu euskal kulturaren gaietan Aita Lino Akesolok adina zekienik».

Bilaketan eta ikerketan nola jokatzeko zuen eta nola saiatzeko zen adierazteko kasu bana-bana batzuk aipatuko ditugu:

Frai Bartolome Santa Teresari buruz hiru idazlan idatzi zituen «Boletin de la R.S. B. de los Amigos del País» aldizkarian: lehenengoan (1968) hura, pertsona gisa eta haren *Plauto Bascongado* aztertzen ditu: Frai Bartolomek Lazkaon profesia egin zuelako berria zalantzan jartzen du; Iruñean eta Tuteran ikasi zuela ere askoz hobeki aztertu beharrekoa dela dio, eta ondoren berak lortutako haren bizitzako argibideak ematen ditu: 1835eko

abenduan hil zelakoa ere ez du ziurtzat jotzen... Bi urte geroago, haren bizitzari buruzko argibide gehiago dakartza; eta haren heriotzari buruz, oker ulerturik, 1836ko urtarrilean hil zela diosku, urte horretako urtarrileko hilen zerrenda batzuetan ageri baitzen. Gauzak hobeki ikertzen jarraitu zuen, eta 14 urte geroago (1984) beste datu berri batzuen artean, haren heriotzako data zehatza ematen digu: eta lehen, 1968eko idazlanean zalantzan jarri zuena, hots, A. Zabalak emandako data, zuzena zela ziurtatu zuen; beraz Frai Bartolome 1835eko abenduan hil zela, areago oraindik abenduaren 11n hil zela ziurtzat jo zuen. Ekin eta ekin, profesia egin zuen tokia ere ziurtasun osoz ematen digu: Corellan egin zuen.

Beste kasu bat bere bizitzako azken aurreko idazlanean agertzen diguna da; hil baino hamar bat egun lehenago idatzia: «Etimologi billa: *Zeanuriko Undurraga eta Olibares*». Barruan zaitadaka egon ohi den arantza bezala zen harentzat Olivares edo Olibares bere amaren deitura; itxuraz ulertezina Diman... Lehen-lehenik zalantza sortu zitzaion, gero bide bila aritu eta urratsak ematen hasi zen. Bilaketa horretan jarrai daitzekeen bide ezberdinak seinatzen ditu (eskuzkribu, argitaratutako liburu, toponimia gidaritzat hartuz eta azkenik agertutako egunkarietako eskelaz ere baliatuz), gaur eguneko Olivares izatera etorri arte izen horren itxura galtzearen bilakaera azalduz. Eta inork



A. Probintzialak, Hipolito Larrakoetxeak, karmeldarren teologiako ikastetxean Elizaren historiako irakasle izendatzen du

uste ez zuena aurkitzen du: deitura hori euskal izen jatorra dela, baina itxura galdurik: deituraren lehen zatia *Ulli* eta *Olli* «Uri» hitzaren kidekoak dira. Batzuetan «Uribarri» *Ulibarri* eta *Ollibarri* formaz agertzen zaigu. Bigarren zatia Bares «Baras» edo «Baratz» izango zen hasieran. Bilboko egunkari bateko hil-txartelen artean Uribaras abizena omen zetorren. Ondorio gisa argi uzten du Zeanurin nahiko zabaldua den «Olivares» abizenak ez duela, behintzat, inolako zerikusirik gaztelaniazko «olivo» hitzarekin.

Aita Lino euskal linguistika eta dialektologian jakintsu handia izan da. Utzi dituen koaderno, paper, egunkari eta aldizkarietatik ebakitako zatiak dira horren lekuko. Euskal literatura eta euskalkietan jakintsurik handienetakotzat jotzen dute adituek; guk geuk horretan guztiz aparta eta berezia zela esan-gonuke. Arlo horretan autodidakta zelako, are miresgarriago zaigu.



A. Linok jaso zituen gutunetariko bi: bata, Antonio Maria Labaienena eta bestea, Jokin Zaitegirena

Gure historia puskak, iraganean galduak, hango eta hemengo paper zaharren artean sakabanatuak zirenak argitara ateratzen ekinalak egindakoa dugu. Interesgarriak dira ia ahazturik zeuden hainbat idazleren balio literarioak azpimarratuz egin dituen ekarpenak; horrela, zor zaien ohorea eman izan die eta betiko galduak eta ahaztuak izatetik argitara atera. Esaterako, pertsona hauek ekarri ditu irakurleen gogoramenera: Pedro Madariana, Valentzian kaligrafo eta irakasle izan zena, XVI. mendeko Dimako semea; Frai Joakim Santa Barbararena (1753-?), *Erle gobernatzalleen guidariya* liburuaren egilea, XIX. mendekoa; Jose Pablo Ulibarri Galindez (1775-1847); idazle honetaz sei artikulua idatzi zituen; Imanol Enbeita (1884-1946); R.M. Azkueren *Latsibi* eta *Ortzuri* eleberriak; Pedro Ignazio Barrutiaren (1682-1759) (*Acto para la Nochebuena*) testuen kritika etab.

## Hiztegitile

A. Lino Akesolo euskal lexikologo ezaguna dugu. Irakurtzen zituen hainbat eta hainbat liburutan lexikoari buruzko ohar txoak ageri dira; koaderno ugari ditu euskal klasikoek beren liburuetan darabiltzaten esapide eta hitzez josiak edota eskuz idatziriko oharrez beteak... Baina bere bizitzako azken 24 urteetan, «Diccionario [...] de Autoridades de la lengua vasca[...]» (9 t., Bilbao 1976-1989) lanean agertu izan du batez ere euskal lexikologian zuen jakinduria. Aita Linoren hiztegi handia da, Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, hark burutua. Liburuaren izenburuan agertzen diren gainerako izen guztiak bi hauen maila berean ezartzea ez litzateke zuzena eta egia izango, ez baitzuten aipatzekorik ezer egin; inola ere ez, behintzat, bi egileen maila merezi lukeenik. Argitaratze lanetan Luis Ortegaren laguntza baliotsua izan zuen.


Hiztegia osatzen duten 9 liburukietan lan eskerga egin arren, Linok, gizon argia izanik,



Diccionario de Autoridades

hiztegia hobetu daitekeela eta hobetu behar-ko zela apalki aitortzeko ez zuen engararik izan. Linok argi eta garbi zuen hainbat urte hiztegitintzan jardun izan arren, herriaren hiztegiaren ikerketa zehatza egin behar zela. Baina ez zuen hau esaten, askotan ohienez, apaltasun faltsuz, bene-benetan eta sentitzen zuenez baizik. Esandako guztiaren lekuko dira hark idatzitako milaka ohar eta zuzenketak. Bere lanerako erabiltzen zuen hiztegi-  
an, 935 orrialdetan ageri dira bere eskuz egin zituen oharra eta osaketak, batez ere lehen lau liburukietan.

Behin honezkero, obra handi hori bere horretan geldituko da, A. Linok ez baitzuen astirik izan bere ohar ugariak sartuz eraberritzeko. Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegia* aurrera doa, nekez eta astiro bada ere, eta honek bilduko duela uste dugu haren altxorra eta hark bildu ezin izan zuen guztia, eskuarte eta bitarteko hobez baliaturik.



Haren Diccionario de Autoridades liburuaren 596. orrialdea, A. Linok oharra egiten baitzizkion gero ere

## **Idazkeran, euskara eredugarria**

L. Akesolok beste askori falta zaizkien dohainak zituen idazteko. Prosaz idazten duenean, bai ipuina, bai zientzia, hizkuntza nahiz historia gaia, euskara argi eta ulerterrazez egin ohi du, euskal senez, joskera onez. Aitorpen bera egin zuen E. Erkiaga idazleak ere Bizkaiko Foru Aldundiak A. Linori omenaldia egin zionean: «Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan doana».

Esaldi mamitsuak maite ditu, laburrak, betegarri edo apaindurarik gabeak; labur baina berez-berezkoa, nahiz eta inoiz luzatu zertxobait... Euskarari jatortasuna eta garbitasuna zor zaio, joskera garbia...


Haren itzulpenen argitasuna adierazten duen beste lekuko bat ere badugu: J. M. Setien, Donostiako apezpiku ohia. Behin, Donostiako apezpikua Begoñako Gogarte-etxean zela, berak gaztelaniaz egindako artzain-gutun bat Lino Akesolok euskaratu zuela adierazi zion apaiz-talde bati; nola euskaratu



Bizkaiko Foru Aldundiak A. Linori egin zion omenaldian

gainera! Setienen ustez, berak egindako gaztelaniazko originala baino argiago eta hobeki. Santi Onaindia eta Lino Akesolo bata bestearen osagarri ikusi izan ditu askok. Guk ere hala ikusten genituen hur-hurretik begira: guztiz ezberdinak, izaeraz ez ziren kideko, baina bai elkar osatzen zutenak. Batari falta zitzaiona besteak zuela esan daiteke. Elkarren ondoan gertatu ziren bizitzako zenbait alditan: adin berekoak, ikaskideak, kartzelan batera egonak, lankideak hainbat lanetan... Izaeraz, Santi alaia zen, lagun artekoa, hitz-jario errazekoa, iritzietan eta bere euskal lanetan ez genuen gogoeta sakonen zalea. Lino, ordea, guztiz bestelakoa zen: serioagoa,

isilagoa, bere adiskideen artean maitagarria eta noizbehinka umore-airea agertzen zuena, jakinduria handikoa eta sakona. Pixka bat harritzekoa bada ere, Santi, euskal lanetan, uztarri bakarrean jarduten zuenetakoa genuen, bere garaiko Jaime Kerexeta eta beste batzuen antzera. Linok, ordea, bere obrarik mardulenak elkarlanean burutuak ditu: liturgiako lanak, hiztegia... Idazkerari dagokionez ere, gauza bera: Santik apaindura ugariz hornitzen du bere kontaketa-haria; barrokoaren loratze eta dotoretasuna dakarzkigu gogora. Linok ez du maite barrokoaren apaindura gehiegizkoa, eta bai klasi-koaren taxuera garbi eta betea.



Bizkaiko Aldundiko lehendakariordeak jakinarazten dio A. Linori (1940-VII-30), hurrengo Ministroen Batzarrean onartuko dela bere baldintzapeko askatasunaren egitasmoa

## Euskal testu zaharren argitaratzaile eta kritikari...

A. Linok gogoko zuen euskararen iturri zahar eta garbiak aztertzea. Idazle zahar eta klasikoen ikertzaile fina izan zen. Idazle zaharrak, Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak, gutxi bezala ezagutzen zituen... Hainbat koaderno utzi dizkigu iturri horietatik hautaturiko esaldi, esapide eta hitzez hornituak. Haienganako joera, maitasuna guztiz nabaria zen harengan; ia berezkoa zirudien. Irakurle handia genuen eta jakin-minez betea. Idazle klasikoengan gaur egungo euskararen erdi ahazturik dauden forma ugari aurkitzen zituen; euskara onaren eredu direnak, batzuetan erdal kutsuko hitzez zipriztinduak egon arren. Altxor aberatsak eta haren jakin-mina asetzeko iturri onak zeuden hor.



*Karmel* aldizkariko idazleen bileran, A. Lino lankide zintzoa baitzen

Hainbat artikulu idatzi zituen idazle zaharrei buruz. Testu zaharrak edo idazle klasikoen argitalpenak prestatzeari ere ekin zion. Honako argitalpen hauek burutu zituen: Bernat Dechepareren olerkiak, haren testua oraingo grafiara aldatuz eta gaztelaniara itzuliz (1968); Joannes Etcheberriren *Noelak eta kanta espiritual berriak* (1970), testua berri-kusiz eta sarrera eta oharra eginez; eta Bernard Gastelluzarren *Eguia Catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac* (1983). Gregorio Arrueren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza* ere berrikusi zuen, eta haren sarrera idatzi (1987).

Jasanezina gertatzen zitzaion idazle zaharrak sakonki aztertu gabe, arinkeriaz edo hala-hola egindako argitalpen akatsez josiak ikustea. Horrelakoetan ez zen giro izaten haren ondoan. Haserrearen haserrez hitzak ere korapilatu egiten zitzaizkion. Asaskatuko



Euskal Liturgiako batzordekideekin

bazen, nonbait idatzi behar, idazle zaharrei zor zaien ohorea itzultzeko. Esaterako, Joan Tartas-en *Onsa hilceco bidia* liburuaren berrargitalpena (JAKIN Liburu Sortan, 18) agertu zenean, Linok kritika zorrotza egin zien edizioaren prestatzaileei *Karmel* aldizkarian (1977-2, 55-67), egindako hainbat akats larri agerian jarritz. Gauza bera gertatu zen 1986an, edizio kritikoan, (Colección Euskararen lekukoak, 12) Frai Bartolomeren *Euscal errijetaco olgueeta ta...* liburutxoa agertu zenean ere.

Baina aurreko guztien ahazgarria Lisieuxko Santa Teresaren *Arima baten istoria* 1991n agertzea izan zen. A. Lino gora-goraka eta haserre bizitan jarri zen itzulpen desegoki eta aldrebesagatik. Ez zuen onik izango, harik eta Karmel aldizkarian kritika serio eta egoki

bat argitaratuko zela entzun arte, baina argitaraturik ikusi orduko hil zen...

Behin Gabriel Arestik idatzi zuen aldizkariaren batean Lino Akesolok egin ohi zituen kritika zorrotzez mindurik. 70eko hamarkadaren hasieran edo zen. Gazte asko irten zen garai hartan euskal letren plazara, direnez eta ez direnez idatziz. Gabriel Aresti, antza denez, haien gidari, artzain eta arnasa-emaile zen. Linok ezin zuen jasan, goizetik gauera euskararen maisu bihurturik, harropuzturik eta guztia zekitelakoan ageri ziren gazte ausarten erronka. Hortik sortu ohi ziren haren kritika zorrotzak. Gabriel Arestik haserre biziz idatzi zuen, esanez, Euskal Herrian ez zela izango euskaraz idazten zuen gazterik, Lino Akesolorengandik ukaldi latzak jaso ez zituenik...



A. Lino eta Antonio Maria Labaien




## Itzultzaile

A. Linoren itzultzaile-lana benetan handia izan zen; batzuetan ezkutuan edo taldean burutua eta beste batzuetan bere izen eta guzti. Gaztelaniara eta euskarara egin ditu itzulpenok.

– Gaztelaniara milaka orrialde izan dira itzulitakoak. Bost hizkuntza ezberdinetako liburu eta idazlanak. Latinezko testuak itzuli zituen gaztelaniara (*Misas propias de la Orden Carmelitana*, Iruñea, 1944, 90 or.); frantsesetik (*La Iglesia y el pecador*, Donostia, 1954, 278 or.); ingelesetik (eleberri

baten itzulpenean esku hartu zuen: Monica BALDWIN, *Yo salté la tapia*, Donostia, 1957); euskaratik Bernat Dechepareren olerkiak (1966tik 1968ra bitartean argitaratuak); baina alemanetik egin zituen itzulpenik gehienak (Fritz TILLMANN, *El maestro llama*, Donostia, 1956, 486 or.; Walter NIGG, *El secreto de los monjes*, Donostia, 1956, 490 or.) Juan SCHUCK – Guillermo NEUSS, *Historia de la Iglesia de Cristo*, Donostia, 734 or.; Edith STEIN, *La ciencia de la cruz. Estudio sobre S. Juan de la Cruz*, Donostia, 1958, 413 or.; Fritz TILLMANN, *Elementos de la moral*



A. Lino hitzaldi batean

*católica*, Donostia, 1959, 225 or.; Erich PRZYWARA, *Criterios católicos*, Donostia, 1962, 189 or.).

- Euskarara egindako itzulpenak ere kontaezinak dira. Prosaz eta bertsoz asko itzuli zuen.

Prosaz egindakoen artean hauek aipatuko ditugu: gaztetan (1930) itzulitako Cervantesen *Agure kezkatia*. S. Teresaren *On-bidea* 1963an (Aita Santi Onaindiarekin batera egindako itzulpena). Iratzeder eta Lerchundik euskaraz jarritako Salmoak, A. Linok bizkaierara aldatu eta egokitu zituen (1964). Hainbat urte geroago hagiografiako eta bes-telako hainbat liburu itzuli zituen; esaterako, D. Fernández de Mendiolak idatzitako liburuxka: *Aita Aureliano karmeldarra (1887-1963)* (Gasteiz, 1983, 59 or.); Manuel Fuentesek idatzitako beste liburuxka bat: *Jaungoikoak Beretzat Gura Nau. Domingo Iturrate Zorionduna, Irukoiztarra* (Bilbo, 1983, 84 or.). Edota S. Joan Gurutzekoaren *Karmel mendira Igoera*, eta *Gau Iluna*, etab.

Baina bereziki aipatu beharra dago Eliz liburu ofizialen itzulpenetan egin zuen lana: Meza liburuak, Irakurgaiak, etab. Aita Santuaren gutun bat ere itzuli zuen, gero Zeruko Argian argitaratu zena; Donostiako Gotzainaren karta pastoral bat ere bai.

- Linok gaitasun aparta erakutsi zuen bertsoak euskarara itzultzean. Liturgi testuetatik 31 olerki edo bertsozko lan itzuli zituen, gehienak latinetik. Baina batez ere gaztelaniatik egin ditu olerki edo bertsoen itzulpenak; hona adibide batzuk: Santa Teresa Avilakoaren *Zeruan det nik bizia* (1951), *Arin, artzaiak, Belenera!* (1952); Alfredo Gómez Jaime, Jorge Isaac, L. C. Lopezen olerki batzuk (1967), Kolonbiako olerkari batzuen lanak (1968), M. Unamunorenak (1970). Eta batez ere S. Joan Gurutzekoaren olerkirik gorenaren itzulpenak. Erromantzeak izan ezik, gainerako guztiak itzuli zituen eta 1990-1992 urteetan argitaratu ziren.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Begoñako Karmeldarren Komentua*
- *Markinako Karmeldarren Komentua*
- *Larreako Karmeldarren Komentua*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1871-1 (Lan osoarena)  
84-457-1873-8

L.G.: VI-558/02

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística